

noaua



ZUBIETA, GIPUZKOAKO HERRIARTEKO BERTSO TXAPELKETAN

Ostiral honetan Yoko Garbi elkartean abestuko dute eta Lasarteko taldea izango da aurkaria / 16-17 or.

NOAUA

Udal dirulaguntzak eskatzeko epea ireki da

Aurten, milioi bat euro pasatxo bideratuko da dirulaguntza deialdietara. Kasu gehienetan, martxoaren 12an itxiko da epealdia / 18-19 or.



NOAUA

Udaletxe sarrerako makinak zerbitzu berriak eskaintzen ditu / 03



ERRIGORA

"Errigorako kanpaina hau etxeko despentsa betetzeko modukoa da" / 12-13



NOAUA

105 otordu prestatu zituzten bigarren afari solidarioan / 14



AGINAGAKO ELIZA ZAHARRA

Larunbat honetan, bertso-afaria eta erromeria Aginagako Eliza Zaharrean / 22



Eslovenia

IRTEERA 2026ko iraila

NOAOA
BIDAIAK

Noaoak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, NOAUA! eta udaletxean aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu www.noaua.eus webgunetik edo eskaneatu QR kodea zure mugikorrarekin!

TREN ETA AUTOBUS ORDUTEGIA

25/26




noaua

otsailaren 26tik martxoaren 18ra
errigora.eus

**ESKUTIK
ESKURA
EGITEN DUGU
HERRIA**




Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa, arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz etiketatuta eta jatorrizko prezioan**

Udaletxe sarrerako makinak zerbitzu berria martxan

2024ko apirila hasieran jarri zuen martxan Usurbilgo Udalak udal erregistroaren atarian dagoen albiste honi atxikitako irudiko makina. Helburu argia zuen: tramiteak erraztea.

usurbilkultura.eus plataformako sarrerak salgai

Makina hau jarri zutenetik ia bi urte igaro diren honetan, izapide gehiago egiteko aukera zabaltzen joan da Udala. Egun, jada, "errolda agiria

eskuratu daiteke, ordainagiriak eta isunak ordaindu, udalaren webgunera edo egoitza elektronikora sartu eta udal-ekipamenduak erreserbatu".

Orain, beste zerbitzu berri bat ere martxan jarri du Udalak. Izan ere, udal erregistro sarrerako makina horren bidez, usurbilkultura.eus plataforman iragarriak ageri diren ekitaldietarako sarrerak erosteko aukera duzuela jakinarazi du Udalak.



Makina erabiltzeko ordutegia: astelehenetik ostiralera 7:30etik 21:00etara. Larunbatetan, 9:00etatik 21:00etara.

Garbigune mugikorra, Kalezarrera

Atalluko Garbigunea herri-tarregana gerturatzea xede duen udal zerbitzua Santueñatik Kalezarrera lekuz aldatuko dute otsailaren 26an eta bertan izango dute martxoaren 4ra arte.

Bestalde, errefusa martxoaren lehenean bilduko da berri ere.

1954. urtekoak maiatzaren 1ean batuko dira

1954. urtean jaioetakoak maiatzaren 1ean elkartuko dira, eguerdiko 14:00etan Atxega jatetxean. Izen-ematea hala ere, apirilaren 20ra bitarte egongo da zabalik. Bi telefono zenbaki hauetarako batera deitu behar da horretarako:

Joxe Leon: 688 62 06 48.
Arantzazu: 650 02 87 58.

1956. urtekoak Sekañan elkartuko dira larunbat honetan

1956. urteko kinto bazkaria otsailaren 28an egingo da. Bazkaria Sekaña erretegiaren izango dela iragarri dute antolatzaileek. Izena emateko, deitu telefono zenbaki hauetako batera: 687 706 363 (Mertxe) / 695 780 696 (Blanca). Izena emateko epea otsailaren 18an amaitzekoa zen.

"Goazen kalera", martxoaren 3an herri erdigunean

Herri erdigunean barrena egingo da hurrengo astearte-ko ibilaldi osasuntsua. Frontoitik 10:30ean abiatu eta Egurtzegitik igaroko dela aurreratu dute antolatzaileek. Amaieran, Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleek sukaldaturiko hamaiketakoak dastatu ahalko da.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkarte@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubieda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzordea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubieda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzailea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Inprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI

Baratze bat

Akaso, testu honen lehen hitzak irakurtzean, Pier Paul Bertzainen kantua ekarriko zenutengogora. Kantuz eta edariz girotutako bazkaloste edo kale jendetsu bat. Edo agian, amonaren mantalpean, nahi baina lausoago dituzun oroitzapenetara egin duzu jauzi, bete-betean. Berari, eta zuri zerorri egin nahi zeniokeen baratzea irudikatzen hasi nahian.

Nire kasuan, lurra erein eta bertatik bizitzeko erabaki irmoa hartua duen nekazari-emakume-gazte baten, Artamugarri izeneko proiektua ere etortzen zait gogora. Duela gutxi, bere jardunaren zuri eta beltzak ezagutza emateko baliatzen dituen sare sozialetan, salmentan jarri dituen kamiseta eder batzuk elkarbanatu baitzituen. Eta bide batez, "Lurra, ereiten duenarentzat" leloa daraman beste kamiseta bat ere badudala oroitu dut, une honetantxe, non dagoen ere ez dakidan arren.

Azken denboraldian, besteak beste, Lurrari eta ingurugiroa eragiten ari garen basakeriak tarteko, elikadura eta nekazaritzaren gaia, beste modu batean mahaigaineratzen ari dela dirudi. Jaten dugunarekiko garrantzia, bertakoa eta gertukoa neurritasunez kontsumitzeko erabakia, langileen lan baldin-



"Grina duenak topatuko du zerbait berria ereiteko modua".

tzen auzia... balioan edo eztabaidan jartzen ari direlarik. Eta zoramen bete honetan, ekoizle berriak pixkanaka gorantz doazela sinetsi nahi genukeen arren, EB eta Mercosurren arteko akordioaren ingurukoak bolo-bolo dabiltzan une berean, baserrietako askok jarraipenik izango ez dutenaren itzala luzea da oraindik.

Ez da giro, eta nahas-mahas honetan, belaunaldiartekotasuna gai konplexu bezain hauskorra dela sentitzen ari naiz, inoiz baina gehiago eta gertuago. Haragi propioan eta baita familiako etxe lurretan ere, gero eta argiago ikusten dut, etorkizuna eta izan zenarekiko transmisioa, gako garrantzitsua dela, oso.

Egun, gero eta esku eta bizkar zartatuagoak besarkatzen naute neroni eta baita baserri eta bertako lur eta animaliak ere. Eta lurra parez pare izanagatik, ulertzea kosta egiten den baimen

edo bultzada zain sentitu izan naiz. Nekatuegi dauden gorputz eta barrenei, errealitatea onartzea bera, are eta erronka gogorrago egoten ari zaien bitartean.

Gehienetan, konfiantza eta gogoa aurrez elikatzen hastea ezinbestekoa izaten da, ondorengoek aurrera pausubatean dezaten. Modu berriak baliatu nahi ditugun horiei, laguntza eta transmisiorako aukerak eskaini eta egiten utzi edota lagunduz, hankak lokatzetan sartu eta norbere bidea du ikasteko.

Lurra lokartu eta belartua egonagatik, grina duenak topatuko baitu akatsak eginda bada ere, zerbait berria ereiteko modua.

"GEHIENETAN, KONFIANTZA ETA GOGOA AURREZ ELIKATZEN HASTE A EZINBESTEKOA IZATEN DA, ONDORENGOEK AURRERA PAUSU BAT EMAN DEZATEN"

Kzgunera datozen ikastaroak

Otsailaren 27ra arte, goizez irekiko dute Usurbilgo KzGunea, 09:00-13:00 artean. Martxoan, arratsalde, 16:00-20:00 artean zabalduko dute. Honatx bertara datozen hurrengo ikastaroen berri:

- Martxoak 2-12, 18:00-20:00 "Google aplikazioak zure smartphonean".
- Martxoak 13-26, 16:00-18:00 "Eman lehenengo pausoak argazki ukituan GIMPeKin".
- Martxoak 27-31, 16:00-18:00 "Zure bidaiak planifikatu".

Informazio gehiago:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

Buruntzaldeko transmaribibolloen aurkezpena

Ostiral honetan egingo dute aurkezpena arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Ondoren, Anukek eta Elenek giroturiko luntxa izango da.

Martxoaren 2an, odol-ematea

Bi hilean lehen astelehenetan Usurbilgo Odol-Emateen elkarrekin finkatu moduan, odola emateko aukera izango da martxoaren 2an, 16:30-20:10 Uda-erregi ikastolako erdiko aretoan. Aurrez odola eman dutenei hitzordua finkatuko zaie. Lehen aldiz odola ematen dutenek dei dezatela hona: 943 007 884.

Sareren mobilizazioa

Hilero azken ostiralean Usurbilgo Sarek deitutako elkarretaratzea ostiral honetan, otsailaren 27an izango da, 20:00etan Mikel Laboa plazan.

Botiloien arrastoak Agerialdeko frontoian

Herriar batek ekarri digu ondoko argazkia. Agerialdeko ikastolako frontoian aterata dago. Azken boladan, larunbatetan botiloia egiten dutela bertan eta zikin-zikin topatzen duela, zorua edariaz zipriztinduta, botilak eta

poltsak lurrean sakabanatuta...

Igande goizetan, frontoian jokatzeko ez dela batera txukun egoten. Kexu hori du eta konponbide bat nahiko luke, horrelakorik berriz errepikatu ez dadin.



Agerialdeko frontoia, igande goizez.

IKA-MIKA

Denboraldi amaieran egungo zuzendaritza taldeak bere lana amaitutzat emango du

USURBIL FUTBOL TALDEKO ZUZENDARITZA

Usurbil Futbol Taldeko zuzendaritzak jakinarazi nahi du denboraldi honen amaieran egungo zuzendaritza taldeak bere lana amaitutzat emango duela. Urte hauetan guztietan, ilusioz, arduraz eta konpromisoaz jardun dugu klubaren alde, proiektu sendo bat eraikiz eta kirolaz harago doazen balioak landuz.

Ibilbide honetan, talde-lana, errespetua, berdintasuna, parte-hartzea, euskara eta herriarekin lotura estua izan dira gure lanaren oinarri. Harro gaude egindako bideaz eta lortutakoaz, eta eskerrak eman nahi dizkiegu urte hauetan bidelagun

izan ditugun pertsona, familia eta erakunde guztiei.

Etapari berri bati hasiera emateko unea iritsi da, eta horregatik, Usurbilgo herritarrei dei egin nahi diegu: klubaren etorkizuna bermatzeko ilusioa duten pertsonen, lanerako gogoia eta konpromisoa duten guztiei, zuzendaritza-talde berri bat osatzeko pausoa eman dezaten. Helburua argia da: orain arte egindako lana jarraitzea, proiektua sendotzen jarraitzea eta landutako balioei eutsi eta haiek garatzen jarraitzea.

Interesa duten pertsonen martxoaren 27a baino lehen jarri ahal izango dute harremanetan klubarekin, telefonoz edota aurrez aurre zuzendaritzako norbaitengana hurbilduz, informazio gehiago jasotzeko

eta euren burua aurkezteko.

Azpimarratu nahi dugu egungo zuzendaritza taldea ondoan izango dutela prozesu honetan: trantsizio egoki, ordenatu eta arina bermatzeko, beharrezko informazioa eta laguntza eskainiz, klubaren etorkizuna ahalik eta baldintzarik onenetan eraikitzeko.

Kluba herriarena da, eta bere indarra komunitatean bertan dago. Ziur gaude Usurbilen badagoela erronka honi heldu eta etorkizunera begira klubaren ibilbidea gidatzeko prest dagoen jendea.

Eskerrik asko orain arteko babes eta konfiantzagatik, eta etorkizunean ere klubaren alde lanean jarraituko duten guztiei, aldezturik, gure esker ona.

IKA-MIKA

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguneko manifestua

TAUPA EUSKALTZALEEN MUGIMENDUA

Hizkuntza ez da soilik hitz egiteko tresna: mundua ulertzeko modua da. Memoria da, gorputza da, ahotsa da, kultura da, eskubidea da. Ama hizkuntza haurren lehen hitzak dira, ama hizkuntzan pentsatzen dugu, amesten dugu. Ama hizkuntzak sustraitzen gaitu gure jatorrira, ematen digu identitatea, garenaz hitz egiten du. Ama hizkuntza behar dugu eta berak behar gaitu.

Azken hamarkadetan Euskal Herria euskara ez ezik, beste hainbat ama hizkuntzaren bizitoki ere bada. Eta euskara aspaldikoa da, baina ez itxia. Mendeetan zehar sobera demonstratu du bere erresilientzia,

eraldatzeko, moldatzeko, bizirauteko izan duen gaitasuna. Eta garaiotan kohesiorako hizkuntza da, gainontzekoen aitortzatik eraikitako elkarbizitzaren bideratzaile. Abegitsua da, “gu” hitzean denok dugulako toki bat.

Izan ere, hizkuntza bakoitzak mundu bat dakar. Hizkuntza bat galtzen denean, mundu bat itzaltzen da. Mundua ulertzeko modua da. Oroitzapenak, ametsak, ahotsak. Ez dugu euskararik nahi beste hizkuntzen gainetik; euskara nahi dugu hizkuntza guztiekin.

Beste hizkuntzak nahi ditugu euskararekin. “Gu” hitzean denok dugulako toki bat.

Ama hizkuntzak eskubidea dira. Haurren lehen hitzetan, helduen egunerokoan, kalean,

eskolan, sarean. Eskubidea da norbere hizkuntzan bizitzea, eta bidezkoa da besteena errespetatzea. Berez ez dago hierarkiarik hizkuntzen artean; bada elkarbizitza, bada elkarbizitza.

Gaur, ama hizkuntza guztiak aitortu eta babestera dei egiten dugu, hizkuntza txikiak ikusezin bihurtzen dituzten egiturak zalantzan jartzera, hizkuntzen arteko elkartasuna eraikitzen. Euskara ez baita salbuespena. Haria da sare batean. Eta sare hori sendoa izango da bakarrik hari guztiak elkarri lotuta badaude.

Hizkuntza bakoitza beharrezkoa delako.

Aniztasuna aberastasuna delako.

Eta etorkizuna elkarrekin eraikitzen delako.

Euskaratik, hizkuntza guztiekin.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). NOAUAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Bordaberri 3, behea 20170 Usurbil / erredakzioa@noaua.eus



Michelingo ehun egunen greba oroitzeko osaturiko batzordeak, berriki, Lasarte-Orian eginiko agerraldia.

"Beharrezko greba izan zen. Denok markatu gintuen grebak"

Michelingo langileek eginiko oihartzun handiko ehun eguneko grebatik 50 urte bete dira. Ordukoa gogora ekartzeko ekintzen zikloa iragarri du, garaiko langileek eta bidelagunek osaturiko batzordeak.

ARITZ LASARTE

Herrian, eskualdean, Euskal Herrian nahiz penintsulan oihartzun handia izandako gertakari baten 50. urtemugara heldu gara. 1976ko otsailaren 16an hasi eta maiatzaren 25era arte luzaturiko ehun eguneko greba egin zuten Michelingo langileek, zapaltzen zitzaizkien haien eskubideen defentsan. Lantegiaren alde-tik jasandako errepresaliak amaitzea, hitzarmenaren negoziazioa eta horren baitan, soldata igoera eta berdintasuna edota Michelinen Valladolideko plantan bidalitako hamasei langileak berriz onartzea negoziatu nahi zuten enpresako zuzendaritzarekin, NOAUA! Kultur Elkarteak, Usurbilgo Etxerat eta Errepre-

sioaren Aurkako Taldeek lan-kidetzan argitaratua duten "Herriak badaki. Usurbilgo memoria errepresiboa, 1973-2002" liburuan irakurri ahal izan dugun moduan.

"Haien ideien oinarri, langileen arteko demokrazia, bakezko ekintza, negoziazioa eta elkartasuna ziren". Aurrez aurrez zuten, ordea, negoziatu nahi ez zuten multinazional boteretsua. 3.500 langile zituen 1976an Michelinek. Ezin ahaz-

**"BILTZEA ZEN
HELBURUA.
ASANBLADAK
EGITEKO NONAHI
BILTZEN ZIREN"**

tu, garaiko testuingurua ere; "Franco hil berria baina bere politikaren eragina bizirik; langileen mugimendua erdi klandestinoa oraindik". Garai hartan, lantegi horrek zuen eragiteko mailaren adierazlea da, bertan lan egin nahi zuenak "certificado de buena conducta" izenekoa aurkeztu behar zuela "aurreko lantokiak emandakoa edo, hori ezean, Guardia Zibilak berak emandakoa", aipatu argitalpenak jasoa duen

**"ELIZA BARRUAN
ZEUDELA, GUARDIA
ZIBILA ETORRI ETA
LEKUA UZTEKO
AGINDU ZIGUN"**

moduan. Horrez gain, "Lasarteko kuartelean aurkeztu beharra zeukaten Michelinek hartzen zituen langileak ondo kontrolatuak egotea nahi izaten baitzuen".

Kaleratuak, atxilotuak...

2.400 langileek bat egin zuten ehun greba egunokin. 70 bat asanblada egin zituzten; "batzuk baimendunak, besteak gabeak", baina "kosta ala kosta, biltzea zen helburua. Asanbladak egiteko nonahi biltzen ziren; elizetan, mendian...". Haietako batzuk, Usurbilgo elizan bertan egin zituzten, Guardia Zibilak jarritako eragozpenengatik. "Bostehun bat langile eliza barruan zeudela, Guardia Zibila etorri eta berehala lekua uzteko agindu zigun. Zenbait ordezkari sindikal ofizialarekin elkarrizketatzeko asmoz atera ziren baina atxilotu eta Lasarteko koartelera eraman zituzten". Aste haietan, Guardia Zibilaren presentzia itogarria jasan zuten, "langileak eta hauei elkartasuna adierazten zietenak ere, astindu eta atxilotuz". 67 langile izan ziren kaleratuak, tartean zazpi usurbildar.

Elkartasuna nagusi

Protesta giroa ez zen Usurbilgo lurretan kokaturiko lantegira mugatu. Michelingo gainerako lantegiekin elkartasun dinamika bultzatu zuten Europa mailako greba bilakatzeraino. Ekintza eta mobilizazio gehiago bideratu zituzten borrokan ziren lantegi gehiagorekin batera. Horrez gain, martxoaren 3ko sarraskiari erantzuteko ahaleaginean inplikatu ziren, erresistentzia ekonomikoko mekanismo berritzaileak bultzatu zituzten behar gehien zutenak laguntzeko edota mobilizazioetan inplikaturiko aintzidaria izandako emakumeen mugimendua egituratu zuten, lantegiko langileen nahiz haien emazteekin.

Zerbait nagusitu bazen, halere, elkartasuna izan zen.

→ Beharrezko laguntza ekonomikoa jaso zuten langileok. "Alde ezberdinetatik lortu zuten: herritar, lantegi, taberna, denda, ikastola eta beste askok eskaini zieten laguntza". Horien artean, aipatu argitalpenak jaso bezala, "Lasarte-Usurbilgo ikastolak greban zeuden langileei ez zietela kobratuko erabaki zuen nahiz eta diru kontuetan beti defizita zuen entitatea izan".

Enpresako zuzendaritzak, ordea, negoziatziorako borondatearik ez zuen agertu ehun egunotan. Hiru hilabeteok igarota, "langileek lanera itzultzea erabaki zuten, batasuna mantendu eta barrutik borrokatzen jarraitzeko".



Michelingo langileek 2023ko ekainean eginiko greba egunetako mobilizazioetako bat.

Bilgunea

Mende erdia igaro da ordutik. Hurbiletik bizi izandako orduko langile eta kaleratuek bilgunea osatu dute. Egungo langileen batzordearen babesa du. Orduan bizitakoa gogora ekarri eta jardueren zikloa antolatzea erabaki dute. Berriki egin zuten aurkezpen agerraldia Lasarte-Orian. Honako helburu hauek ditu: "trantsizioa deiturikoaren hasieran, 2.000 langileen kaleratzea ekarri zuen langile-borrokaren bizipenak berreskuratzea eta testuinguruan kokatzea; emakumeek greban izan zuten funtsezko zeregina agerian uztea; Lasarte-Oriako herriaren eta inguruko enpresen elkartasun aktiboa aitortzea; eta greban parte hartu zutenen eta Lasarte-Oriako bizilagunen arteko elkartzea eta adiskidetasuna bultzatzea, besteak beste".

Transmisioan eragin nahi dute baita; orduan jazotakoa helarazi belaunaldi berriei, "gogoan izan ditzatela beti. Gaurko gazteen aiton-amonak izan ziren protagonistak. Gure helburua da memoria ariketa honek bultzada bat suposatzea egungo borroka sindikal eta sozialari, balioan jartzea borroka eta konpromisoaren beharra eredu sozial bidez-

koago eta berdinzaleago batean aurrera egiteko, munduan zehar dabilen eta Euskal Herrian eta estatu espainiarrean ere sustraitzen saiatzen ari den olatu faxista eta autoritarioa geldiarazteko".

Gogora ekarri zutenaz, "Michelin makina inposatzailerari eta eskubide soziolaboralak eta oinarritzko askatasun demokratikoak (biltzeko eta manifestatzeko eskubidea, greba-eskubidea...) ukatzen zizkigun testuinguru politiko bati aurre egin behar izan zioten langileen belaunaldia oroitu eta omendu nahi dugu". Izan ere, gogora ekarri zutenaz, "Michelinek ustiapen- eta kontrol-eredu oso sofistikatuak garatzen zuten, elementu paternalistak tartean (kooperatiba, futbol-kluba...), hura amortizatu edo diluitu nahian. Ustiapen-eredu horrek, halaber, langileen arteko desberdintasuna eta konfrontazioa bultzatzen zuten, haien poten-

tzial kolektiboa neutralizatze-ko modu gisa. Negoziazio kolektiborik ez zegoen eta pantomima negoziatzaileak egiten ziren erregimen frankistaren sindikalismo bertikala ezartzen zuen eredu antidemokratikoarekin. Sindikatuak legez kanpokoak ziren eta patronalak nahiz sistemak langileen mugimenduaren antolakuntza- eta borroka-mekanismoak jazarri eta baldintzatzen zituzten".

Ekarpen garrantzitsua egin zieten langileok "garai hartako langile-borroken ereduak eta dinamikei". Ez hori bakarrik. "Michelin bezalako muntro baten aurrean, guztiok ahalgintuen greba izan zen. Greba aurrez aurre jarri gintuen, enpresaren interesen defentsan, gure porrota biltzen zuten sistema politiko baten kontra". Lanera itzuli behar izan zuten ehun eguneko grebaren ondotik eta "errepresio handia izan zen"

itzulera haren osteko hilabeteetan. Baina argi diote, "testuinguru sozial eta politiko hartan bidea ireki zuen borroka izan zen. Beharrezko greba izan zen. Denok markatu gintuen grebak. Langile klaseko kide gisa harrotasuna eta duintasuna eman zigun grebak".

Batzeko deia

Agerraldi hartan, taldera batzeko dei egin zieten duela 50 urte Michelin lanean aritu edota kaleratuak izandakoei. Haiei guztiei, gainera, honako hau eskatu zieten; "garai hartako edozein dokumentu, argazki, panfleto, pegatina edota prentsa erreseina" helaraztea, erakusketa antolatuta asmotan dira eta. Materialik izanez gero, bilgunearekin hartuemanetan jartzea galdegin dute, helbide honetara idatzita: 100egunekogreba@gmail.com. Erakusketaz gain, ehun egun haietan kaleraturiko langileen eta partaideen asanblada, institutuko gazteei zuzenduriko hitzaldia, grebari buruzko beste saio bat edota lagunarteko bazkari bat ere antolatzekotan dira. Hitzordu gehienak Lasarte-Orian egingekoak dituzte, baten bat Usurbilen ere bai.

"LANERA ITZULTZEA ERABAKI ZUTEN, BORROKAN JARRAITZEKO"

"LANGILE KLASeko KIDE GISA HARROTASUNA ETA DUINTASUNA EMAN ZIGUN GREBAK"

Eremukako banaketa, ur sarea kontrolatzeko

Ur emaria kontrolatu eta galerak saihestea du helburu Usurbilgo Udalak hartutako neurriak.

ARITZ LASARTE

Usurbilgo Udalak zazpi eremutan banatu du herriko ur sarea. Honako hauek dira eremuok: Zubieta, Santuenea, Kalezar, Txikiendi eta Ugaldea, Zumartegi eta Osinalde industriaguneak. "Uraren emaria kontrolatu eta galerak saihesteko" hartu dute aipatu neurria, Udaletik berri eman dutenez. Horretarako, urriaren 13tik urtarilaren 26ra arte "ur emariaren informazioa erregistratzen duten zazpi gailu jarri dira". Zortzi ditu egun, izan ere lehenetik bat jarria zuen Aginagan. Gailu digitalon bidez, "udalak une oro jakin ahal izango du uraren emaria zenbatekoa den, baita galerarik izatekotan non dauden ere". Udaletik zehaztu dutenez hain zuzen, "gailuok bertatik banatzen den ur kopuruaren berri ematen diote udalari, digitalki: hala, telefonoz zein ordenagailu baten laguntzarekin une oro jakin daiteke emaria zenbatekoa den. Inbertsio horrek galerak identifikatzea azkartu eta konponketak lehenbailehen bideratzea

erraztuko du, sarearen eragin-kortasuna bermatu eta udalaren baliabideak modu eraginkorragoan erabiltzea ahalbidetxeaz gainera".

Lanak Gabirondo Iturgintza enpresari esleitu zizkion Udalak "120.000 euroan, eta Europako funtsen finantzaketa izan du, 62.400 eurokoa".

Lan gehiago

Neurri hau, ur sarea digitalizatzeko Udalak duela hiru urte hasitako ibilbidearen baitan kokatua dago. Gogora ekarri dutenez, "2023an, inbertsio handia egin zen, 894.125 eurokoa, Andatzatik datorren ura udalerriko etxebizitzentzen %62ra iristea ahalbidetu zuena". Iaz, jada, Udalak helarazitako datuen arabera, %75ean hornitu zen Usurbil herriko urarekin, Erroizpeko presa eta iturburuetatik.

Inbertsio horren baitan, hiru lan egin zituzten. "Batetik, San Esteban 1 deposituan filtro berriak jarri ziren, Erroizpeko iturburuetako ura ez ezik presako ura ere baliatu ahal iza-



Modu honetan, udalak une oro jakin ahal izango du uraren emaria zenbatekoa den.

teko. Bestetik, Erroizpeko iturburuak eta San Esteban 1 depositua lotzen dituen hodia berritu zen. Eta, gainera, telekontrol sistema berria ezarri zen, Europako Batasuneko Next Generation funtsetatik bultzatutako PERTE dirulaguntza baliatuta. Dirulaguntza horren lerro berri bati esker egin da, orain, sarearen digitalizazioan sakontzeko urratsa".

Usurbilgo inbertsioa eremu zabalagoan kokatu beharra dago; Udalaren esanetan, "Donostialdeko Uraren Zikloaren Digitalizazioaren parte da. Izan ere, Europako funtsak eskuratu eta uraren zikloaren digitalizazioan sakondu ahal izateko, Digurbe elkarte osat-

tu zuten Añarbeko Urak eta Gipuzkoako bederatzi udalerririk, tartean, Usurbilek".

Aginagako saneamendu lanak

Duela hilabete Aginagako saneamendu sariaren zati bat egokitzeko lanak esleitu zituela jakinarazi zuen Usurbilgo Udalak. Maiatz inguruko lanon xedea, euri urak ibaira isuri baina ur zikinak Loiolako araztegira bideratzea da. Obra hauek abiarazi dituela jakinarazi du Udalak. 22 asteko iraupena izango dutela aurreikusi dute. Guztira, 384.865 euroko inbertsioa bideratuko dute lanotara. Eregi Herrilan eta Zerbitzuak enpresa arduratuko da obra hauetaz.

Usurbilgo Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala, jendaurrean

Udalbatzaren aurtengo lehenengo osoko bilkuran, 2026-29 urte arterako Usurbilgo Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala (IUPI) hasieraz eta aho batez onartu zuten. Erabaki haren berri eman zuen Usurbilgo Udalak, otsailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez. Horrekin

batera, Udalak erabaki du "adierazitako plana jendaurrean jartzea 30 lan egunetan (apirilaren 9ra arte), interesdunek egoki iriztitako iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten".

Udal plangintza osoa ikusteko aukera duzue helbide honetan: usurbil.eus/eu/iupi

Urrats berri bat, udalbatzaren osoko bilkuren digitalizazioan

Udaamaieraz geroztik, 2025eko irailetik zuzenean ikus daitezke udalbatzaren hileroko ohi-ko osoko bilkurak, baita, tarte deitu ohi dituzten ezohiko izaerakoak ere. Datorrena, ostegun honetan bertan egingo dute, hilaren 26an.

Honenbestez, Udalak Youtube- duen kanalaren bidez

zuzenean ikus ditzakezue udalbatzaren osoko bilkurak, [@usurbiludala4589](https://www.youtube.com/channel/UC4589) helbidean hain zuzen. Gero, zuzeneko emanaldi horiek aipatu plataforman jasoak geratzen dira eta bertan ikusi ahalko dituzue noiznahi, baina baita Usurbilgo Udalaren usurbil.bideoaktak.eus atarian ere.



Txokoaldeko Altzonazko zubia, ireki berri. NOAUA

"Abandonatuta sentitu gara"

Zortzi hilabetez itxita egon eta gero, Txokoaldeko Altzonazko zubia otsailaren 6an ireki zuten. Auzokideak ordea, ez daude oso pozik emaitzarekin, eta zubiaren konpontze-lanak iraun bitartean arazoak izan dituztela adierazi digute inkesta bat egitera hurbildu garenean.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO
2025eko ekainaren 2an itxi zuten Txokoaldeko Altzonazko zubia, eta zortzi hilabete eta gero, otsailaren 6an ireki zuten berriro.

Euskal Trenbide Sareak (ETS) egin zituen lanak. Orain, Aginagako tunela deituriko proiektua garatu behar dute hainbat hilabetez, eta Altzonazko zubitik pisu handiko kamioiak pasako diren beldur dira bizilagunak.

Zubi berria auzokideen ahotan dabil etengabe: estuegia den, obren garaian

egin beharreko ibilbide zirkularra...

"Zubia estuegia da kamioientzat"
NOAUA! Txokoalde auzora joan da auzokideen iritzia batzera. Hitz egiteko gogoz sumatu ditugu, baina ez dute euren izen-abizenik eman nahi izan eta beraz, anonimotasunetik egin dizkigute adierazpenok.

"Zubia estuegia da kamioientzat", halaxe esan digu adineko bizilagun batek, eta kamioi batek bidegorriko piboteak jotzen dituen bideo bat era-

kutsi digu. Gainera, obren garaian egin beharreko ibilbide zirkularraz kexu zen: "San Estebanera bidean zulo asko daude, eta ez dira bi kotxe aldi berean sartzen".

Beste auzokide bat ere, ibilbide horren kexu zen. Auzotik ateratzeko San Estebanera igo behar zuten eta bueltan, Oria ondoko bidetik itzuli behar ziren. Gainera, joan-etorriak egiteko ordutegi bat zutela azaldu digu. Gauez, argirik ez izatea salatu du, eta "abandonatuta" sentitu direla esan digu.

Beste bizilagun batek zaborrarekin arazoak izan dituztela adierazi du. Izan ere, trenbidea pasata beirazko kontainer bat dago, eta betetzen zenean, auzokideek beirak bertatik kanpo utzi behar zituztela azaldu du. Auzotik mugitzeko modu bakarra kotxearekin zela esplikatu digu, eta ETS-ek egin behar duen tunela aprobetxatuta, Aginagako geltokia berriro martxan jartzeko eskatu du, auzotarren "mugikortasuna erraztu dezan". Besteak beste, trenaren maiztasuna igo egingo baita.

Espaloia eta bidegorriarekin pozik
Motorlan-Fagor Automatioko langile bati ere, zubia "estu samarra" iruditzen zaio, haiengana doazen kamioiak eta kotxe zabalak justu sartzen direlako. Baina espaloia eta bidegorria jartzea ondo iruditzen zaio. Obren garaia "konplikatu" iruditzen zaion: "Bide batzuetatik etorri gara ez zeudenak prestatuta kamioiekin etortzeko. Denborekin bideak higatu egin dira, eta zuloak sortu dira. Baina orokorrean, denbora pixka bat galdu badugu ere, ez dut arazo handirik izan".

Obren garaian pozik izan den bizilagunen bat ere aurtitu digu. Zubia itxita zegoenez, haren etxe aurretik trafikorik ez zen igarotzen, horrek "lasaitasuna" eman ziola aitortu digu.

"SAN ESTEBANERAKO BIDEAN ZULO ASKO DAUDE, ETA EZ DIRA BI KOTXE BATERA SARTZEN"

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA
• PLATER KONBINATUAK
• BOKATAK • PINTXOAK
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Patxi
• bazkariak EGUNERO
• afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 • © 688 690 361



Donostiako familia batek dohaintzan emandako koadroen artean dira Tapiarenak.

Alejandro Tapiaren bi artelan jaso ditu San Telmo Museoak

García Ramos sendiaren hamar artelan jaso ditu dohaintzan museoak. Horien artean, bi aginagar artistarenak dira.

Artelanteko bat "Aiako bistak" izeneko oihal gaineko olio lana da, 65x80 zentimetrokoa. Bigarrenak "La fábrica" izena du. San Telmo Museoak jakinarazi duenez, 1965. urtekoa da. Hau ere, oihalean sortutako olio lana, aurrekoa baino txikixeagoa, 60x72 zentimetrokoa. Bilanokaipatu sendiak Alejandro Tapiak museoan ikusgai jarritako lanen erakusketa batean eskuratu zituen.

Gainerako zortzi sorkuntza lanak, Julián Tellaeche, Aurelio Arteta, Ricardo Baroja, Eduardo Chillida, Ascensio Martiarena, Carlos Marcote, Gaspar Montes eta Arturo Acebalenak dira. Guztira, "zortzi olio, akuafuerte bat eta zeramikazko eskultura bat" daude García Ramosek San Telmoari eginiko dohaintza horretan.

Etorkizunean ikusgai

Aipatu museotik azaldu dutenez, "egungo emaileen gurasoek urtetan zehar sortu zuten bildumaren zati bat da dohaintza. Gustuko zuten artea, ohikoak ziren erakusketatan, galeriatan eta enkan-teetan, eta harremanak zituzten sektoreko artista eta pro-

fesionalekin. Koadroak erosi eta saltzen zituzten, eta urteen poderioz familiaren bilduma handitzen joan ziren. Gurasoak eta anaietako bat hil zirenean, bildumaren zati bat San Telmori ematea erabaki zuten".

Jasotako dohaintza horretako lan guztiok errestauratu eta gero museoan jarri asmo dituzte ikusgai.

Dohaintzan jasotako artelanak

- Ascensio Martiarena: Barcasas en el Sena.
- Gaspar Montes Iturrioz: Huertas de Amute (Irun).
- Aurelio Arteta: Recolección de las manzanas (ca. 1913 – 1915).
- Julián de Tellaeche: Descargando en el puerto (1931).
- Carlos Marcote: Gure gurasoak (1995).
- Alejandro Tapia: Vista de Aia.
- Alejandro Tapia: La fábrica (1965).
- Ricardo Baroja: La maestra de Ocoz (ca. 1938).
- Eduardo Chillida: Aurrera (1967).
- Arturo Acebal Idígoras: Cabeza de mujer (1967).



Plazaratu den bilduman Ixabel Agirresaroberekin ipuin bat dago.

Geuretik Sortuak proiektuko ipuin-bilduma kalean da

Hamabi idazlek ondu dute literatur bilduma hau. Ipuin bakoitza Euskal Herriko txoko ezberdin batean idatzia izan da.

Euskarazko sorkuntza sustatzeko Usurbilgo udalerria kide duen Udabiltza partzuergoak hirugarrenez antolaturiko Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan, hamaika proiektu ondu dira; tartean, ipuinak. Idatzizko lanok "Hamaika irakurtzeko jaioak" izeneko bilduman jaso eta argitaratu dituzte.

Hala, Atxondon egon da Mirren Artetxe Sarasola; Gorlizen Maitane Perez; Amasa-Villabonan Maitane Nerekan Uman; Nafarroako Goi Erriberan Zigor Garro; Baigorri Naia Arantzamendi; Aulesti, Amoro eta Munitibar herri multzoan Oier Guillan; Ikaztegi-tan Peru Calabaza Saban; Oiartzunen Saioa Iribarren eta Ander Basaldua; Etxalar, Arantza, Bera eta Lesakan, Goiz Eder Iturain; Asparrena eta Ziordian Ixabel Agirresarobe, eta Ortzaizen Garazi Albizua.

Ixabel Agirresaroberekin ipuina

Esan bezala, liburuan hama-bi ipuin daude; tartean, Ixabel Agirresarobe Arzallusek sortutakoa. Usurbilgoak Ziordian eta Azparrenen egin zuen iaz

egonaldia. Bertan ondutakoa da irakurgai izango dugun bere ipuina. Esaterako, antzezlanekin egiten ari diren moduan, Euskal Herrian barrera hainbat aurkezpen saio egingo dituzte.

Igande honetan Sutegin, "Kolapsoa" antzezlan

Gauza bera egiten ari dira Geuretik Sortuak egitasmoaren baitan ondutako antzezlanekin ere. Haietako bat, igande honetan, martxoaren lehenean estreinatuko da 18:00etan Sutegin; "Kolapsoa" izena du. Iaz, Usurbilen egin-dako egonaldiaren baitan ekoitzi zuen Jon Ander Urresti bermeoarrak. "Publizitate agentzia honetako hiru kideak edozer saltzeko kapaz dira. Den-dena, baita behar ez du-zuna ere. Batik bat, behar ez du-zuna". Oraingo honetan, ordea, "gauza bakar bat saltzea lortu behar dute: gehiago ez erosteko gogoa". Antzezlanerako sarrerak 3,5 eurotan eskura ditzakezue usurbilkultura.eus plataforman.



Eñaut Elorrieta, Aginagako Eliza Zaharreko oholztan.

Eñaut Elorrietaren kontzertua Aginagan

"Fantasia" diskoaren osteko eta hurrengo lana ondu arteko Ateosteko Biraren baitako kontzertua eskaini zuen Eñaut

Elorrietak otsailaren 22an Aginagako Eliza Zaharrean. Sarrerak aurreko asteotan agortu ziren.



Martxoaren 7an Antzuolan jokatu da Gipuzkoako finala.

Gipuzkoako lehiarako sailkatuak

Euskal Herriko 17. Mus Txapelketako herri mailako kanporaketa jokatu zen otsailaren 22an. Justo Pulidok eta Rufino

Izagirrek irabazi zuten Julen eta Vidal Benitorekin lehiaturiko finala. Bi bikoteok sailkatu dira Gipuzkoako finalerako.



Xake festa aurreko ostiralean ospatu zen.

Xake festa udal liburutegian

Udal liburutegiko agendan, dagoeneko erro sendoak ditu xake festak. Aurreko ostiralean lagun ugari bertaratu ziren.

Lehen txandan, hastapenean daudenak elkartu ziren eta bigarren txandan, xakean jokatzen dakitenak.



Kuadrilla hau batu zen mikroipuin idazketa tailerrean.

Mikroipuin idazketa tailerra

Udal liburutegiak mikroipuin idazketa tailer bat antolatu zuen aurreko larunbatean. Idoia Torregaraireren eskutik,

gako jakingarriak jaso zituzten eta bide batez, tarte atsegin bat igarotzeko aukera izan zuten.

**EGIN ZAITEZ
BAZKIDE!**

www.noaueus



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza • segurtasun beirak • ispiluak
• dutxa-itxiturak eta irristailuak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Antxeta

TABERNA

egunero irekitzen dugu!

• eguneko menua • asteburuko menua
• oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.



"Errigorakoa auzolanean egiten den ariketa bat da", Peru Aranburuk aitortu digunez. GOIENA

"Errigora hazten ari da urtez urte, oraindik ez du goia jo"

PERU ARANBURU ERRIGORA EKIMENEN KIDEA

Egun eroak dira hauek Errigoraren bueltan lanean ari diren guztientzat. Aste honetan zabaldu da udaberriko produktuen eskaintza: olioak, kontserba loteak, arroza, pasta... Martxoaren 18an amaituko da eskaerak egiteko epea. Eta eskatutakoa, maiatza hasieran iritsiko da gure artera.

IMANOL UBEDA

Errigorak bi kanpaina ezberdin sustatzen ditu urtero. Oraingo hau otsailaren 26an hasi eta martxoaren 18ra arte luzatuko da. Zer nolako produktuak eskura ditzakegu honakoan?

Udaberrian etxeko despentsa betetzeko moduko produktuak eskaintzen ditugu. Hau da, Nafarroako baratzeak ematen dituen berezko produktuetatik, urte osoko kontsumora begira sortzen diren loteak. Eta hor daude, alde batetik, olio bidoiak; eta bestetik, kontserba loteak: zainzuriak, piperrak, orburuak, tomateak, potxak, dilistak, txitxirioak, kardua... Eta horiekin batera, kontserbak ez diren beste pro-

duktu batzuk ere bai: arroza edo pasta.

Errigoraren kanpainara lehen aldiz hurbiltzen denak, nola egin dezake eskaera? Nora jo behar-ko luke?

Alde batetik, aurretik Errigorako eskaerarik egin duen batek ziur asko lagunduko

liokeela. Bestela, Usurbilen, erreferentzia nagusiak Udarreri ikastola eta NOAUA! Kultur Elkartea dira. NOAUA!-ko egoitzara hurbilduta, eskaera bideratu ahal izango luke.

Bestela, sare sozialetatik edo Errigoraren Whatsapp kanalaren bidez topa daitezke ga-

"KANPAINA HONETAKO ESKAINTZA ETXEKO DESPENTSA BETETZEKO MODUKOA DA"

"ESKAERA ORAIN EGIN ETA ESKATUTAKOA MAIATZAREN HASIERAN IRITSIKO ZAIZU"

raian garaiko kanpainen inguruko informazioak eta loturak. Errigoraren webgunera jo dezala bestela. Nahikoa intuitiboa da, errigora.eus helbidean eskaera bat egiteko prozesua erraza da.

Egunotan egin behar da Errigorako produktuen eskaera. Baina jaso, erosleak noiz jaso ahal izango ditu produktu horiek Usurbilen?

Errigorako produktuak maiatzaren hasieran iritsiko dira (maiatzaren 8an arratsalde, edo maiatzaren 9an goizez jaso ahal izango dira Errigorako saskiak Udarreri). Kontua da norberak egiten duela eskaera, baina Errigorakoa auzolanean egiten den ariketa bat da. Boluntarioen laguntzarekin.

Lehenbizi eskari guztiak pilatu, zenbatu eta ordenatu behar dira. Kontuan hartu beharreko beste aldagai bat da ekoizpena. Ekoizle bakoitzak bere loteak prestatu beharko ditu, eta ondoren ekoizle guztien loteak batu beharko ditugu. Garraiatu aurretik, bidalketa guztiak herrikan antolatu beharko dira. Aurten imajinatzen dut Usurbiler hiru edo lau palet eram beharko ditugula. Beraz, eskaera guztiak batera iritsiko dira zuen herrira, eta boluntarioen bidez egingo da deskarga. Ikusten duzun moduan, bai antolaketa eta baita logistika ere, berezia da.

Usurbilen, Udarreri jaso behar-ko dira Errigorako eskaerak.

Kasu honetan, eskaeraren bolumena handia denez, Udarreri ikastolara eramango da dena, antolatzeko eta banaketa egiteko errazagoa delako horrela. Eskatzaileak hortaz, handik pasa beharko dute bere saskia jasotzera.

Errigorako saskien erosleak gero eta gehiago dira. Gure pertzepzioa da ala Errigorak dagoene-ko jo du goia?

→ Udaberriko kanpainan, esango genuke ezetz. Ez dakigu hurrengo urteetan ze norabide hartuko duen, baina gerta daitekeena da arazoak beste batzuk bihurtzen hasia: logistikoak, ekoizpenari lotutakoak...

Udaberriko kanpainahonekin gertatzen dena da, hurbiltzen den jendea hurbiltzen dela seguraski Errigoraren balioekin bat datorrelako. Horietako askok, bide batez, etxeko despen-tsa betetzeko baliatzen dute Errigorako kanpaina. Olioia, kontserbak... erosi eta pilatzeko etxeko biltegian. Urteotan ohitura hori hartu dute askok.

Oraindik hazten ari da eta esango nuke goranzko tendentzian jarraitzen dugula oraindik.

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura, hori da Errigoraren lema. Ekimen hau abiatu zenetik hona, ekoizleak ere ugaritzen joango ziren ezta?

Gurekin 23 ekoizle egiten dute lan. Gure proiektuan integratuta dauden ekoizle horietako asko elaboratzaileak dira. Hau da, lehengai bat hartzen dute eta lehengai hori merkaturatzen dute gero: olioia, kontserbak... Elaboratzaile horietako gehienak nekazariak ere badira, lehengai hori eurek ekoizten dute.



Boluntarioen laguntza ezinbestekoa da Errigoraren dinamikan.

Orain dela pare bat urte halako ikerketa bat egin genuen, eta kalkulatu genuen udaberriko kanpaina batek 1.000 bat nekazariren lehengaiak eskatzen dituela. Bolumen handia da. Egia da Nafarroako lurrak zabalak direla, baina dagoeneko zenbaki serioak dira Errigorak mugitzen dituenak.

Bestetik, erosleen eta ekoizleen arteko kanal bat sendotu da, harremana naturalizatu egin

da, eta hori oso positiboa da. Dena den, nekazaritza oso debaluatuta dagoen sektore bat da. Arazoa estrukturala da eta ari gara horren inguruan hausnartzen. Jendeak ez du nekazaritzara dedikatu nahi eta dagoeneko, gure kanpainak asetzeko, nekazariak eta lurrak falta dira. Daudenak adin baktekoak dira eta bost edo hamar urte barru arazo baten aurrean egon gaitezke. Hori horrela da.

"EGUNEROKO KONTSUMO OHITURETATIK ERE EGIN DAITEKE HERRIA"

"KORRIKAREN OMENALDIAK BULTZADA HANDIA EMANGO DIO ERRIGORARI"

"Korrikaren aitorpenak indarra eman digu"

Korrikak Errigora omenduko du edizio honetan. Pozez hartuko zenuten albistea, ezta?

Poz handia hartu genuen, bai. Aurrera egiteko indarra eman digu. Argi daukaguna da herri bezala daukagun tresna garrantzitsuenetako bat dela Korrika. Herria marrazten du, jendearen partehartzea sustatzen du, emozioak biltzeko balio du... Herri mugimenduen alorrean, Korrika top zerrendako lehen postuan da.

Egia da AEK-ko jendearekin harreman handia dugula aspalditik, eta elkar maite dugula, baina Korrikaren izenean halako errekonozimendu bat jasotzeak poz handia eman digu. Eta guretzako bultzada ere bada. Euskal mundua txikia da, zabala ere bai, eta errekonozimendu honek bultzada handia emango dio Errigorari.

Korrika herri bat egiteko daukagun tresna eraginkorrena izango da eta logika horretan, eguneroko kontsumo ohituretatik ere egin daiteke herria. Errigorakoa, bere txikitasunean, Korrikaren antzeko ariketa bat da azken batean.

Errigoraren produktuak eskatzeko garaia da

Ohi baino goiztiarrago aurten, otsailaren 26tik martxoaren 18ra izango da Errigoraren "Eskutik eskura egiten dugu herria" kanpaina. Nafarroa erdialdean eta hegoaldean ekoiztiko produktuak eskuratzearren truke, irabazien laurdena zonalde hartako euskalgintzara bideratuko da beste behin. Oraingo honetan, oli-ba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta ardo loteak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorriko prezioan erosi ahaliko dituzue.

Eskaerak, NOAUA!ko bulegoan edo errigora.eus webgunean

Eskabideak, ohi bezala, NOAUA! Kultur Elkartean nahiz errigora.eus bidez egin ahaliko dituzue. Maiatzaren 8an eta 9an banatuko ditu kultur elkartek honek, iaz bezala, Uda-erregi ikastolako erdiko aretoan. Dena den, eguna gerturatu ahal zehaztuko dugu zein egunetan eta zein ordutegian jaso ahal izango diren eskatutako produktuak.

Ordainketak egiteko bi modu izango dituzue. "Online eginez



Nafarroako olioia eskatu daiteke.

gero, bi zatitan ordaintzeko aukera izango duzu. Bestela, dena batera ordain dezakezu, eskudirutan, produktuak ja-

sotzerakoan", jakinarazi du Errigorak.

Peru Aranburuk adierazi digun moduan, Errigorak "beste modu batera kontsumitzeko aukera eskaintzen digu. Balioetan oinarritutako ekoizpen eraldatzaile bat bultzatzeaz gain, Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak gure etxeetaraino jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta ekartzeko bide bat eskaintzen digu". Errigora hortaz, "gure lurrak emandako produktuak kontsumitzeko eta, beraz, herria egiteko aukera bat da".

Informazio gehiago errigora.eus atarian jaso daiteke.



105 otordu prestatu zituzten arratsalde batean.



Donostiako Kale Solidarioak proiektuan parte hartzen du kuadrilla honek.

Auzolanean prestatutako bigarren afari solidarioa

Donostiako Kaleko Afari Solidarioak egitasmoarekin bat eginik dabilen herritar taldeak bigarren elkartasun otordua prestatu zuen otsailaren 17an, Aitzaga elkartearen. Donostiara garraiatu zuten gero, han banatzeko.

Bi hilabeteko tartean bigarrenez, elkartasun txokoan bilakatu zuten berriz otsailaren 17an Aitzaga elkartearen. Izan ere, 105 otordu prestatu zituzten arratsaldean zehar. Sukaldatutakoa paketatzen jardun ziren gero, dena Donostiara garraiatzeko.

Gogoan izan, Kaleko Afari Solidarioak (KAS) egitasmoaren baitan Usurbilen udazkenean sortutako herritarren taldeak zuen finkatua bigarren elkartasun otordua prestatzeko hitzordua. Abenduaren 23an prestatu zuten lehen afari solidarioa, azaroa amaie-

ran bideraturiko elikagaien bilketaren ondotik.

Hedabide honetara igorritako oharren arabera, "dakizuenez, Usurbilgo herritarrok Donostiako Kale Afari Solidarioak (KAS) proiektuan parte hartzen dugu, bertako langileei lan-karga arintzeko asmotan".

Urte amaieran prestatutako lehen otorduaren ondotik, bigarrena hilaren 17an sukaldatzea adostua zuten. "Oraingoan, ez dugu janari-bilketarik egiteko beharrik, aurrekoan izan genuen bilketa oparoari esker", nabarmendu digute egunotan, aipatu herritar taldeak.

Horregatik, eskertza helarazi nahi izan diote ohar bidez herritarrei; "Mila esker, Usurbil!". Kaleko Afari Solidarioak egitasmoarekin bat egin eta bertan parte hartu nahi dutenek, telefono zenbaki honetara idatziz edo deitu dezakete: 688 85 08 24. Hurrengo hila-beteotan otordu gehiago prestatu asmotan dira.

PRESTATUTAKO JANA PAKETATU ETA GERO, DONOSTIARA GARRAIATU ZUTEN

Datorren Gazte Eguneko egitaraua plazaratu dute

Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak EHZ-rekin batera, Gazte Egunearen data finkatu eta haren egitaraua plazaratu dute sare sozialen bidez.

2026ko Usurbilgo Gazte Egunak finkatua du data eta prest du baita egitaraua. Hala jakinarazi du Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanbladak sare sozialen bidez.

Hasteko, datari dagokionean, martxoaren 14an ospatuko da aurtengo Usurbilgo Gazte Eguna, larunbatarekin.

Lau hitzordu izango ditu egun horrek. Goizean hasiko

dute Artzabalgo gazte lokalean, "kulturgintzan ekin" tailerarekin. Saioa, Euskal Herria Zuzenean (EHZ) jaialdiko kideekin antolatu dute. Gogoan izan, 2024ko abenduan jakinarazi moduan, Usurbilgo Udalak eta Jakin Fundazioak sustaturiko Joan Mari Torrealdaiek bigarren deialdiko proiektu irabazlea izan zen "EHZ 1996-2026: herri bat zuzenean" izenekoa.

Arratsalde partean izango du segida Gazte Egunak. Bueltan izango ditugu Iruñeako San Ferminetako Peña Ale-

griako kideak. Haiekin poteo girotua antolatu dute. Poteo horren ostean, afaritarako bilduko dira Askatasuna plazan. Otordurako txartelak martxoaren 2an jarriko dituztela salgai jakinarazi dute.

Azkenik, gauerditik aurrera, kontzertu gaua antolatu dute:

Gazte Eguna Martxoak 14, larunbata

- 11:30 "Kulturgintzan ekin" tailerra, EHZko kideekin, Artzabalgo gazte lokalean.
- 17:30 Poteo girotua Iruñeako Peña Alegriako kideekin.
- 20:30 Afaria Askatasuna plazan. Txartelak Aitzagan eta



Afaria Askatasuna plazan izango da.

Txirristran salgai. Martxoaren 2tik 11ra eskuragarri.

- 00:00 Kontzertuak: Bisaiak, Nafarroa 1512, Dj Adarrak.
- Antolatzaileak: Aztarrika Usurbilgo Gazte Asanblada, EH Zuzenean.



Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunak otsailaren 19an batu ziren Sutegin.

Sutegi, Gipuzkoako jubilatuetan eta pentsiodunen biltoki

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen Duintasuna elkarteak Sutegin bildu zen otsailaren 19an; urteko lehen asanblada egin zuten kultur-etxeako auditorioan.

ARITZ LASARTE

Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen Duintasuna elkartearen erreferentziazko biltoki bilakatu da azken urteotan Usurbil eta bertako Sutegi kultur-etxea. Izan ere, 2022an, 2024an edota iazko apirillean ere gune berean elkartu ziren aipatu bilguneko ordezkariak.

Otsailaren 19an, 2026ko urteko lehen bilkura egin zuten kultur-etxeako auditorioan bertan. Ohikoa duten moduan, orain arte eginiko bidearen balantzea egin nahiz aurrera begirako erronkak hartu zituzten ahotan.

Sinadura bilketa

Gipuzkoako txoko askotako jubilatuetan eta pentsiodunak batu zituen hitzorduak; besteak beste, Bergara, Zarautz, Tolosa, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Urretxu-Zumarraga, Hondarribia, Andoain, Donostia, Lasarte-Oria edota Oñatiko ordezkariak elkartu ziren Sutegin.

Beste ezer baino lehen, iaz zendutakoak ekarri zituzten gogora. "Haien borroka eta konpromisoa gurekin daude", nabarmendu zuten.

2025eko balantzeari begira, borroka urte gogorra izan dela oroitarazi zuten segidan. Mugari garrantzitsu gisa nabarmendu zuten, iaz bideraturiko sinadura bilketa. Gogoan izan, Herri Ekimen Legegile (HEL) bat sustatu nahi izan zuten, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduaren baitan, "Pentsioak Osatzeko Euskal Sistema bat ezartzeko" eta horren baitan, "14 ordain-saritan 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, lege bihur zedin". 145.000 atxikimendu baino gehiago bildu zituzten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, herriz herri eginiko sinadura bilketa kanpainaren baitan; haietatik 48.039 Gipuzkoan eta horietatik 524 Usurbilen.

Deialdiak izandako harrerak argi erakutsi du Duintasuna-

ko kideek Sutegin adierazi moduan, ekimen hau aurrera ateratzeko herritarrek agerturiko babesa eta halako neurri bat indarrean jartzeko dagoen benetako beharra. Haien eskaera onartzeko bidean, ordea, "oztopo handiak" izan dituztela gaitzetsi zuten. Zenbait alderdi politikoei Herri Ekimen Legegile horri Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzeko jarritako zailtasunen aurrean, "gure gaitzespen irmoa" adierazi nahi izan zuten Sutegitik.

Jarrera horren ondorioz, "euskal pentsiodunak pobrezia kondemnatu" eta uko egin diete haien eskumenak erabiltzeari, Duintasunak iragan asteko asanbladan adierazi zuenez.

Halere, gogorarazi zuten, "ez da hemen amaitzen borroka". Hainbat alorretan eragiten ari baitira eta horretan segi asmo dute; zaintza eta osasun eremuri buruz ari gara. Hala, eskertu eta txalotu nahi izan zuten hilaren 19ko asanbladan, "zaintza eta osasunaren alde lanean ari zaretenon konpromisoa eta lana". Dei egin zuten, "zaintza integrala" jorratu eta bermatuko duen sistema publikoa eraikitzen segitzera. Hainbeste urte lanean jardun ostean, bizitzako azken etapa bermedun duintasunez izateko borrokan segitzeko deia egin zuten.

ZENBAIT ALDERDI POLITIKOK HERRI EKIMEN LEGEGILE HORRI EUSKO LEGEBILTZARREAN EZTABAIDATZEKO JARRITAKO ZAILTASUNEN AURREAN, GAITZESPEN IRMOA ADIERAZI ZUTEN



Martxoaren 10ean igel-jokoan arituko dira.

Jubilatu Astea, begi-bistan

Urtero moduan, Gure Pakea elkarteak Jubilatuetan Astea antolatzen du martxoaren 9tik 15era. Askotariko ekintzak tartekatzen dituzte egitarauan; txapelketak, bazkariak, txango edota hitzaldi bana... "Animatu parte hartzera" egin dute gonbita. Otorduetarako izena, martxoaren 2a baino lehen biderratu beharko da.

Jubilatu Astea

Martxoak 9, astelehena

- 10:30 Toka.
- 16:00 Tutea.

Martxoak 10, asteartea

- 10:30 Igel-jokoa.
- 16:00 Musa.

Martxoak 11, asteazkena

- 10:30 Punttuan.
- 16:00-17:00 Elikadurari buruzko hitzaldia.

Martxoak 12, osteguna

- 09:00 Martxa eta hamaiketakoa.
- Eguerdian, bazkaria Aginaga sagardotegian. Prezioa: 30 euro.

Martxoak 13, ostirala

- 10:30 Botea.
- 16:00 Eskoba.

Martxoak 15, igandea

- 14:00 Bazkaria Aginaga sagardotegian.
- Prezioa: 35 euro.

Oharra: ordainketak egiteko azken eguna, martxoaren 2a. Antolatzailea: Gure Pakea.



"Finalera iristea polita izango litzateke", aitortu du Azpirozek. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Herriari bizipoz pixka bat ematearren aurkeztu gara"

UNAI AZPIROZ BERTSOLARIA

Gipuzkoako Herriarteko hirugarren bertso txapelketa hasi da, eta Unai Azpirozek, Zubietako taldeko kideetako batek, txapelketaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Buruntzaldeko azpitaldean ariko dira eta lehen saioa ostiral honetan dute, Yoko-Garbi elkartean.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO Zergatik berreskuratu da Gipuzkoako Herriarteko bertso txapelketa?

Nik ez dakit zergatik berreskuratu den berriro, baina badakit lehenago egiten zela eta indar handia zuela. Berriz antolatu duten honetan, animatu egin gara.

Lehen txanpa eskualdeka antolatu dago, ezta?

Bai, gu Buruntzaldea eskualdearen barruan gaude. Eskualde bakoitzean kanporaketak egingo dira, eta gero piramidea osatzen joango da finalera iritsi

arte. Oker ez banago, sei talde gaude guztira.

Txapelketa hasi da baina zuek ostiral honetan duzue lehen saioa, Lasarteko taldearen aurka.

Hori da. Zubietako Yoko-Garbi elkartean da zita, bizilagun di-

ren Lasarteren aurka. Ea zer gertatzen den.

Zenbat partaide zaudete Zubietako taldean?

Oker ez banago bost partaide behar dira taldea osatzeko: hiru bertsolari, epaimahaikide bat

"PARTE HARTZE HUTSAREKIN POZIK GAUDE. HERRIAN ZITA BERRI BAT SORTZEA ZEN HELBURUA"

"ESKUALDE BAKOITZAK AUKERATZEN DU NOLA EGIN TXAPELKETAREN LEHEN FASEA"

eta gai jartzaile bat. Eta halaxe gara.

Nortzuk osatzen duzue Zubietako taldea? Aurkeztu itzazu zure taldekideak.

Gai-jartzailea Maialen Iñarra izango da, epailea Ane Aranburu eta bertsolariak Asier Azpiroz, Aitor Larreta "Vaquilla" eta ni.

Aipatu duzu Buruntzaldean parte hartuko duzuela, baina Zubietako Donostia eta Usurbil artean da. Donostialdean parte hartzeko aukera aztertu al duzue?

Hori ez da planteatu ere egin. Hemen (Zubietan) bizi denarentzako planteamendu hori ez da horrela, eta ez dauka zentzurik planteamendu horrek. Gure mendiak eta errekek eskualde honetan daude.

Nola egituratzen da txapelketa?

Zortzi eskualdek parte hartzen dute, eta eskualde bakoitzak aukeratzen du nola egin txapelketaren lehen fase hori. Saio gehiago edo gutxiago izan daitezke antolatzen duenaren arabera. Horren ondoren, eskualde bakoitzeko irabazleak edukiko genituzke. Zortzi talde izango lirateke, eta hortik aurrera, final-laurdenak, finalerdia eta finala. Finala Aian izango da, maiatzaren 30an.

Zer edo zer berezia prestatu duzue ostiral honetan Zubietan antolatutako saiorako?

Parte hartze hutsarekin pozik gaude. Gure helburuetako bat herrian zita berri bat sortzea da. Normalean horrelako herrietan herriko festak izaten dira bilgune, baina hortik aurrera kosta egiten da biltzea. Herriari bizipoz pixka bat ematearren antolatu dugu saioa, lasartearren kontra gainera. Lehendabiziko helburua horixe izango litzateke.

Helburutzat jotzen duzue Aiako finalera iristea?

Ni lehen saioa eginda pozik nago. Aiara joatea polita izango litzateke, baina egia esan, ez zait burutik pasa.

→ Zer berezitasun duzue zuek talde gisa?

Denetik dugu: esperientziarik ez duena, baita esperientzia duena ere. Azken finean, bertsolariak familiakoak gara, eta hitz egin gabe ere ulertzen dugu elkar. Horixe izango zen bai onerako eta bai txarrerako dugun zerbait.

Zubietako taldea

- Bertsolariak: Asier Azpiroz, Aitor Larreta "Vaquilla" eta Unai Azpiroz.
- Gai-jartzailea: Maialen Iñarra.
- Epailea: Ane Aranburu.
- Ordezkaria: Asier Azpiroz.



Goian, Ane Aranburu, Unai Azpiroz eta Aitor Larreta. Behean, Maialen Iñarra eta Asier Azpiroz.

Finala, maiatzaren 30ean Aiako probalekuan

Abian da dagoeneko Gipuzkoako Herriarteko txapelketa. Aurten, hiru-garrenez antolatu dute herriartekoa, 1999 eta 2017ko txapelketak eta gero. Guztira, 57 taldek hartuko dute parte, eta 350 pertsona ibiliko dira bertsotan, epaile lanetan eta gai jartzaile lanak egiten. Talde bakoitzak ere ordezkari bat izango du bilketa, komunikazio edo antolaketa lanak egiteko. Aurreko urteetako txapelketekin alderatuta, inoiz baino talde gehiago aurkeztu dira.

Lehen fasea, eskualdeka

Lehen faserako, zortzi eskualdetan banatu dituzte taldeak: Buruntzaldea, Urola, Urola-kosta, Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri, Donostia eta Oarso-Bidasoa. Eskualde bakoitzak antolatzen du lehen fase hori. Buruntzaldean adibidez, saio bat jokatu eta eskualdeko finalera iritsi

zaitezke; Donostia eta Oarso-Bidasoan, aldiz, talde guztiek talde guztien aurkalehiatu beharko dute bigarren fasera iristeko. Lehen fase hori urtarrilaren 18an hasi zen, eta martxoaren 28a bitarte iraungo du.

Bigarren faseari dago-kionez, lehen faseko irabazleak haien artean lehiatuko dira lau saiotan, eta horietatik lau talde aterako dira finalerdietara. Saio horiek areto handiagoetan izango dira.

Finalerako txartelak laster jarriko dira salgai

Finala, aldiz, Aiako probalekuan izango da maiatzaren 30ean. Finalaren eguna bertsoaren egun erraldoi baten gisa antolatu nahi dute, eta horregatik, bertso-bazkari erraldoi baten gisan planteatu dute. "Finala baino gehiago, bertsolaritzaren festa izan nahi du egun honek, elkargunea", gehitu dute antolatzaileek.

Azken faseetarako sarrerak martxoan jarriko dira salgai www.bertso-sarrerak.eus atarian.

Bertsozale elkartearen arabera, bi hilabeteetan 100 saio inguru antolatuko dira Gipuzkoan. Gainera, elkartearen arabera, ia 40 bertsolari berri igoko dira lehen aldiz oholtza gainera.

Harri Agirresarobe, Añorgako taldean

Usurbilen ez da talderik osatu honakoan. Harri Agirresarobe kalezartarra ere kantari arituko da, "baina Añorgako taldean", txapelketako antolatzaileek aditzera eman digutenez.

"BERTSOZALE ELKARTEAREN ESANETAN, IA 40 BERTSOLARI BERRI IGOKO DIRA LEHEN ALDIZ OHOLTZA GAINERA"

Ostiral honetan, Yoko Garbi elkartean

Zubietako taldeak bere lehen saioa izango du ostiral honetan arratsaldeko 20:30etan Yoko Garbi elkartean. Lasarteko taldearen aurka lehiatuko dira, eta talde irabazlea Buruntzaldeako finalera sailkatuko da. Finala Urnietako Xoxoka auzoko elkartean izango da, martxoaren 14an.

Kanporaketa hori gaindituta, final laurdenetara pasako lirake, eta beste eskualde baten aurka lehiatu beharko lirake; Urola, Urola-kosta, Debabarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri, Donostia eta Oarso-Bidasoa eskualdeetako txapeldunetako baten aurka.



Etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzeko dirulaguntza deialdia plazaratu du Usurbilgo Udalak.

Askotariko dirulaguntzak eskuratzeko aukera

Udal aurrekontuen %8a, milioi bat euro pasatxo bideratuko ditu Usurbilgo Udalak jada plazaratu dituen dirulaguntza deialdietara. Eskabideak aurkezteko epealdia zabalik dute interesdunek; kasu gehienetan, martxoaren 12ra arte.

Usurbil Zabalik dirulaguntzen oinarriak

Xedea: 2026 urtean Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokaletan jarduera ekonomiko berri bat abian jarri nahi duten ekintzaileei laguntzeko, bi dirulaguntza lerroren bitartez: enpresa ekimenak abiaraztearen hasierako gastuei aurre egiteko dirulaguntzak; jarduera ekonomiko berri bat hutsik dagoen merkataritza lokal batean irekitzeko, lokalaren alokairu edo erosketa gastuak ordaintzeko laguntza.

Zenbatekoa: guztira, 27.800 euro (11.000 euro enpresa ekimenak abiaraztearen hasierako gastuetarako eta 16.800 euro bi urteetako lokalaren alokairu edo erosketa gastuetarako;

gehienez 9.600 euro lehen urtean eta 7.200 euro bigarren urtean).

Eskabideak: irailaren 30era arteko tartea.

Hasiz Hazi dirulaguntza deialdia

Xedea: 2026 urtean, jarduera proiektu bat duen ekintzaileari, Kabiene elkarteak duen elkarlan-gunearen egonaldi

eta erabilera diruz ordaintzea. Elkarlan gune hau, lane-rako espazio bat ez ezik, baliabideak eta esperientziak partekatzeko leku bat izango da. Jarduera proiektuarekin hasi berriak, Beterri-Buruntza eskualdeko enpresak sortzen laguntzeko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahal izango dira.

LOKAL HUTSETAN JARDUERA EKONOMIKO BERRIAK ABIARAZTEA LAGUNDUKO DA

KABIENEN URTEBETEKO EGONALDIA DIRUZ LAGUNDUKO DU HASIZ HAZI DEIALDIAK

Zenbatekoa: 4.500 euro guztira. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 1.742,40 eurokoa izango da, ekintzaileak 12 hilabetetako erabilera izaten badu Kabiennen.

Eskabideak: irailaren 30era arteko tartea.

Kultur sorkuntzarako dirulaguntzak

Xedea: sormena bultzatu; kultura sare eraldatzaile, dinamiko eta parte-hartzailea sustatu; herritarrek goza dezaten kultur eskaintza erakargarria, anitza, hurbila eta eskuragarria sortu; eta, era berean, bertako kultura balioan jarri eta gizarte integratzailea eraikitzen lagundu.

Zenbatekoa: norbanako edo talde bakoitzaren lan bat baino gehiago lagun litezke diruz, baina eskatzaile bakoitzeko muga 3.000 eurokoa izango da.

Etxebizitza alokatzeko dirulaguntzak

Xedea: eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzeko oinarri erregulatzaileak ezartzea; Usurbilgo alokairuko etxebizitza eskuratzeko erraztea.

Zenbatekoa: gehienez 250 eurokoa izango da bizikidetzata bakoitzeko.

Igogailuak instalatzeko dirulaguntzak

Zenbatekoa: eskaera bakoitzeko dirulaguntza gehienez 1.000 eurokoa izango da.

Gizarte Ongizatea saila

Xedea: norgehiagoka erregimenean, 2026. urtean Gizarte Zerbitzuen arloan egitasmoak burutzeko. Usurbilgo Udala arreta ereduaren eraldaketan ari da, pertsona ardatz duen arreta ereduaren lehenetsiz, pertsonalizazioa oinarri, zerbitzuen logikatik bizi planen logikara salto egiten duena herri zaintzailea hortzimugan duela.

Ingurumen saila

Xedea: norgehiagoka erregimenean 2025 edo/eta 2026. urtean zehar ingurumen arloan egitasmoak burutu dituzten erakunde publiko nahiz pribatuiei zuzenduta.

Onuradunak: pobrezia energetikoko egoerak; energiaren kontsumoa murrizteko egindako inbertsioak; energia ez berriztagarriaren kontsumoa energia berriztagarriaren kontsumoarekin ordezkatzeko ekintzak; ingurumen gaien inguruko dibulgazio kanpainak, jardunaldiak antolatzea, tailer-raketa azterlanak; bioaniztasun, ondare natural, hondakin, aire kalitate eta kutsaduraren inguruko proiektu eta ekintzen garapena; etxeetako ur saneamendu azpiegituren egokitze eta/edo berritze lanak.

Zenbatekoa: guztira, 60.000 euro. Gehienez %90eko laguntza elkarten interes orokorreko ekintzetan; %50ekoa norbanakoen kasuan, 2.000 euro gehienez eskaera bakoitzeko.

Kirol saila

1-Kirol taldeen ohiko dirulaguntza zuzenak

Partida: 60.000 euro.

Onuradunak: %30a denboraldiko lizentzia kopuruentzako, %20a denboraldiko kirol lizentziak sortzen duten gastuetarako, %18a denboraldiko arbitraje gastuetarako, %5a kalitatezko entrenatzailerak sustatze aldera, dirulaguntzaren %3a autofinantziaziorako, %16a bidaia eta pertsonal-gastuentzako, %8a aurreko gastuez gain, beste gastuentzako.

2-Kirol egokitutako jardueretarako dirulaguntzak

Onuradunak: espresuki kirol egokituko kolektiboek zuzendutakoak eta inklusioari lotutakoak hartuko dira kontuan. **Zenbatekoa:** gehienez 3.000 euro.



Kultura sare eraldatzaile eta dinamikoa sustatuko dute udal dirulaguntzek.

3-Kirol elkartenak ez diren kirol jardueretarako dirulaguntzak

Xedea: Usurbilen kirol elkarteak izan gabe antolatzen diren kirol jardueretako dirulaguntza zuzenak ematea.

Onuradunak: 2.000 euroko partida. ikastaroak %60an (parte hartzaileko gehienez 100 euro) lagunduko dira.

Kultura saila

Xedea: Kultura Sare eraldatzailea, dinamikoa eta parte-hartzailea sustatzea; kultur eskaintza erakargarria, anitza, hurbila eta eskuragarria sortzea; herritarrek ongi pasatzera bideratua dagoena eta era berean, bertako kultura balioan jarri eta gizarte integratzailea eraikitzen lagunduko duena.

Partida: 80.000 euro.

KIROL EGOKITUKO DIRULAGUNTZAK JARDUERA INKLUSIBOEI ZUZENDURIKOAK IZANGO DIRA

Onuradunak: ikastaroetan gehienez %60ko dirulaguntza, parte-hartzaile bakoitzeko 100 euro; irteeretan gehienez %10ekoa; kanpamentu, udako ekintzak edota txokoetan, gehienez %60koa; gainerako kultur ekintzetan %95ekoa.

Nekazaritza eta abeltzaintza alorreko dirulaguntzak

Zenbatekoa: gehienez ere kostu osoaren %50a izango da, eta eskatzaile bakoitzari gehienez 2.000 euro emango zaizkio. Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da.

Desgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikien osasun egoera hobetzeko tratamenduetarako dirulaguntzen deialdia

GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO DIRULAGUNTZAK ALDI BATERAKO HITZARTUKO DIRA

Onuradunak: ezgaitasuna edota mendekotasuna duten adin txikien guraso edo tutoreak. **Zenbatekoa:** eskaera bakoitzeko 400-600 euro.

Eskabideak: 20 egun baliodun, otsailaren 13tik zenbatzen hasita.

Gizarte-bazterkeriaren aurkako dirulaguntzen deialdia

Xedea: oinarritzko beharrak asetzeta da, baliabide ekonomikorik ez eta bestelako laguntzak jaso ezin dituzten pertsona edo familiei zuzenduta daude. Prestazio ekonomiko hauek ezohikoak dira, aldi baterakoak, dirulaguntza izaerakoak, subsidiarioak, osagarriak eta finalistak.

Diruz lagunduko diren gastuak: etxebizitza bat eskuratze-ko sarrera gastuak, sendagileak agindutako medikazioa, gizarte-segurantzak diruz laguntzen ez duen kasuetan, diruz laguntzen ez diren justiziaren-arloko gastuak edota hezkuntza-gastuak, ohiko eguneroko gastuak (elikadura, arropak, garraioa), aurreko kontzeptuetan zorpetzea egongo dela aurreikusten diren egoerak, udaleko gizarte-langilearen txostenean adierazten diren premia biziko beste edozein gastu.

Norgehiagoka erregimenekoak ez diren kirol arloko dirulaguntzak eskatzeko deialdi irekia

Onuradunak: laguntza bereziak (6.000 euro), taldeetako presetakuntza teknikoak (1.000 euro), kiroleko oinarritzko osasun miaketak (5.000 euro), eskolaz kanpoko kirol jardueretan parte hartzeko dirulaguntzak (5.000 euro).

Eskabideak: azaroaren 13ra arte.

Eskabideak aurkezteko modua: presentzialki udal erregistroan edo telematikoki usurbil.eus atarian.

Informazio gehiago: usurbil.eus/eu/dirulaguntzak / otsailaren 12ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Deitzailea: Usurbilgo Udala.



Datorren greba orokorra girotzeko kartelak eseki dituzte.

Greba orokorreko manifestuarekin bat egiteko deia

Helbide honetan bat egin daiteke datorren greba orokorrari begirako manifestuarekin: <https://labur.eus/M17Atxikimenduak>

ARITZ LASARTE

ELA, LAB, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuek hilabete barru Lanbidearteko Gutxieneko Soldata 1.500 eurokoa izateko martxoaren 17rako Hego Euskal Herrian deitutako greba orokorrerako atxikimenduak biltzen hasiak dira. Dagoeneko hamaika gizarte mugimenduk eta eragileek atxikimendua adierazi diote deialdiaren harira plazaraturiko manifestuari. Bat egin duten eragileen artean bada herri ordezkariarik; Xauxar Txozna Batzordea. Badira baita herrian ordezkariak duten beste zenbait eragile ere; hala nola, Ernai gazte antolakundea edota Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak.

Manifestuarekin jada bat egin dutenek "argi eta garbi diogu: borroka hau irabaztera

goaz. Martxoaren 17an dena gelditzeko deialdia egiten dugu. Lan guztiak desnormalizatzen deitzen dugu. Greba egitea ezinezkoa dutenak presente, greba babestera deitzen dugu. Sinetsita gaude borroka merezi duela eta lortu dezakegula". Izan ere, "patronala eta agintari politikoak eskutik helduta doaz, aberastasuna modu justuan banatzeko edozein neurri blokeatzeko asmoz". Hala, "bertan bizi garenon oinarritzko beharrak asetzeko diru sarrera nahikoa

"ALDARRIKAPEN ZILEGI, JUSTU ETA EGINGARRI BATI BIDE GUZTIAK ITXI DIZKIETE"

izatea ekidin nahi dute, eta dagoeneko pairatzen ditugun arrakala sozialetan sakondu. Aldarrikapen zilegi, justu eta egingarri bati bide guztiak itxi dizkiete".

Ondorioz, "pobrezia eta prekaritatea hedatzen jarraitzen dute, eta horren ondorioek eragina dute gure gorputzetan, osasunean, harreman sozial eta laboraletan eta baita gure eskubideetan ere. Bizi proiektu desiragarriak eta duinak ezinezkoak bilakatzen ari dira geroz eta langile sektore gehiagorentzat. Baina hemen gaude gu: egunero herri eta auzoetan antolatzen garen hamaika eragile sozial eta herri mugimendu".

Erabakitzeko burujabetza

Horregatik, askotariko ikuspegidun eragileek "bat egiten dugu oinarritzko ideia batekin: Euskal Herrian gutxieneko soldata propioa izatea bertan lan egiten dugun eta bizi garen pertsona guztientzako onura dakarren aldarrikapena da".

Hori hedatu nahi dute manifestuarekin bat egindakoek baigreba egunean nahiz horren aurretik ere. "Herri eta auzotako Greba Batzordeetan parte hartuko dugu. Grebahonen aldeko pedagogia eta politizazio lana egingo dugu, langileei, eta oro har herritarrei, deialdiaren arrazoiak azalduz eta deialdiarekin bat egin dezaten".

Greba orokorraren egunean, "gutxieneko soldata hemen erabaki. Gure bizi-baldintzei, gure soldatei eta gure etorkizunari buruz erabakitzeko burujabetza aldarrikatzen dugu. LGS 1500. Hobetu ditzagun soldata aberastasuna banatzeko!".

Martxoaren 8ra begirako deialdiak

Egun horri begirako zenbait ekimen antolatu dira Usurbilen, segidan dituzue xehetasunak

Otsailaren 24tik aurrera

- Arratsaldetik aurrera, Lila-toian parte hartzeko Emakumeon Etxean talde gisa izena emandako 36 emakumeek lasterketarako materiala (kamisetak, dortsalak...) jasotzeko aukera Emakumon Etxean bertan, Kalezarko Pelaiokenean.

Martxoak 1, igandea

- 10:00 36. Lilatoia Donostiako Bulebarretik.
- 14:00 Elene eta Anuek giroturiko pintxo pote musikatua Artzabalen. Txartelak salgai Artzabalen eta Txirristan 10 eurotan, otsailaren 27ra arte. Antolatzaileak: Emakumeon Etxea eta Kafe Tertulia.

Martxoak 6-7

- Euskal Herriko aditu nagusietakoa den Maitena Monroyk bideraturiko autodefentsa feminista hastapen tailerra martxoaren 6an (17:00-20:30 artean) eta martxoaren 7an (10:00-14:30 artean) Emakumeon Etxean.
- Izen-ematea: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 377 112.

Martxoak 12-Maiatzak 21 (ostegunero)

- 17:00-19:00 Etxeko konponketen tailerra Emakumoen Etxean, Izaskun Gurrutxaga Etxeberriarekin.
- Izen-ematea: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 377 112.



943 361 182

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata

Kalezar Auzoa 12, OB, USURBIL Tel 943 73 20 27





Otar-Goxo
Elkaiak

Zubiarene 2, 943 36 55 81

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

10 urte Usurbilen alokairuan bizi den familia bat gara. Alokatzeko etxeren bat baduzu deitu: 68865344.

Etxebizitza bila dabilen familia gara. 688 653 441.

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA/IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

Orduka eta egunez, adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest: 747 446 091.

Pertsonen zaintza edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Titulua dut. 645 067 560.

Lan bila nabil ume zaintzarako edo eskolako lan esfortzurako. Haurren

aisialdirako hezitzailea naiz eta esperientzia handia dut. 688 699 986

Orduka aritzeko lan bila nabil. Garbiketa lanak edo pertsonen zaintza aritzeko prestutasuna. Harremanetarako: 623443766

Pertsona helduan zaintzeko lan bila nabil. Titulazioa dut eta esperientzia handia. Deitu hona: 618814363 (Marta).

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

Bigarren eskuko furgoneta edo kombi baten bila gabiltza. Harremanetarako: 626419583

Datorren oporraldiari begira, Kirol Astea antolatu du Usurbil FT-k

Datorren udaberriko oporraldian ere Kirol Astea antolatu du Usurbil F.T.-k, LH 3-6 mailakoentzat. Izen-ematea zabalik dute martxoaren 22ra arte. Martxoaren 30ean hasi eta apirilaren 2ra arte deitu dute aurtengo edizioa.

Goizeko 10:00etatik 13:00era

Saioak goizez izango dira, 10:00-13:00 artean. Prezio orokorra 40 eurokoa izango

da, 30 eurokoa txokoetan anai-arrebarik izanez gero. Izen-ematea helbide honetan bideratu ahalko da: <https://forms.gle/NqM2u31W-7PAzs9G48>. Bertan duzue ordainketak egin beharreko kontu zenbakia ere.

Ordainketak egiterakoan, kontzeptuan haurraren izen-abizenak eta "Kirol Astea" jartzea eskatu dute antolatzaileek.

Usurbil eta Arantzazu arteko ibilaldia, apirilaren 2an

Hamarkada luzez bizirik mantentzea lortu duten ohitura da Usurbildik Arantzazura oinez joatekoa alegia. Aurten ere ibilaldi hau egitekoak dira, ohi bezala, udaberriko oporretan, apirilaren 2an. Ordu aldaketa batizango du datorren edizioak. Izan ere, beti egin izan ohi duten moduan, goizaldeko 5:00etan abiatu beharrean 4:00etan abiatzeko hitzordua jarri dute, helmugara garaiz iritsi ahal izateko.

63 kilometro luze dituen bidea osatzeko (2.700 metroko desnibela) prestatzen hasteko deia egin dute antolakuntzatik. Aurtengoan ere helarazi duten ohar garrantzitsua; parte hartzaileak federatuak izateak duen garrantzia, edozer gertatuta ere deitzaileak ez baitira horren erantzule egingo. Informazio gehiago jaso edota izena eman nahi duenak deitu dezala hona: 662 039 829.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Eskubaloia, etxean

Otsailak 28, larunbata

- 09:30 Kadete neskak A: -Cortes Usurbil K.E.
- Larraioz ZKE
- 11:00 Kadete mutilak: Usurbil K.E.-Urdaneta A
- 16:00 Senior neskak: Urbil-Usurbil K.E.- Eibar B

Marxtoak 1, igandea

- 09:30 Jubenil neskak: Usurbil K.E.-Munttarpe

32. Oriaren Jaitsiera

Martxoaren 7an jokatu da, 16:30etik aurrera. Ohi bezala, bi modalitateetan antolatuko da. Bi lehia saioak Aginagatik abiatu eta Orio izango dute helmuga.

HILDAKOAK



Milagros Irastorza Beloki
Otsailaren 22an hil zen, 86 urterekin.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 27

USURBIL Sareren mobilizazioa

Euskal preso, iheslari eta deportatuen aldeko mobilizazioa.
20:00 Mikel Laboa plazan.

ZUBIETA Herriarteko Bertso Txapelketa Zubietan

Zubietaren eta Lasarteren arteko kanporaketa saioa.
20:30 oko-Garbi elkartean.

LARUNBATA 28

USURBIL Ongi etorri bilera iaz bizitzera etorritakoei

11:30-13:00 Udalbatza aretoan.

USURBIL Kantu-jira

12:00-14:00 Mikel Laboa plazan.

AGINAGA Erromeria eta bertso-afaria

18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañagarekin.
21:00 Bertso-afaria.
Eliza Zaharrear.

IGANDEA 01

USURBIL #M8: pintxo pote musikatua

14:00 Artzabalen.

USURBIL "Kolapsoa" antzezlan

Sarrerak 3,5 euro usurbilkultura.eus
18:00 Sutejin.



Andoni Egaña, Xabat Illarremendi eta Nerea Elustondo arituko dira kantari larunbatean.

Bertso-afaria eta erromeria Aginagan

Sarrerak agortu zituen Eñaut Elorrietaren iragan igandeko kontzertuaren ondotik, erromeria eta bertso-afaria antolatuta Aginagako Eliza Zaharra Elkarguneak larunbaterako:

Otsailak 28, larunbata

Aginagako Eliza Zaharrear:

- 18:00 Erromeria Ostolaza eta Larrañaga trikitilarietara giroa berotzeko.
- Sarrera, doan.

- 21:00 Bertso-afari ederra eta hiru bertsolari handi kantuan: Andoni Egaña, Xabat Illarregi eta Nerea Elustondo.
- Gai-jartzailea: Ibai Esoain.
- Menua: iberikoak, pate, baserriko oilaskoa eta txerri saiheksia parrilan, Eceizako pastelxoak, kafea eta kopa.
- Sarrera: 30 euro. Arrate Otsatua eta usurbilkultura.eus plataforman.
- Antolatzailea: Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.

Kantu-jira larunbatean

Agate Deunaren bezperako eta herri inauterien kalejiren ondotik, hirugarrenez plazaratuko dira hilabete honi dagokionean, Usurbilgo Euskal Kantu Taldekoak. Larunbat honetan izango da, otsailaren 28an. 12:00etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

Bisita gidatuak, datozen hitzorduak

Martxo amaierara arteko bisita gidatuen eskaintza plazaratu du 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak:

Otsailak 27, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Martxoak 7, larunbata

• 11:00-12:30 Salbatore Elizaren ondarea, organo erakustaldia.

Martxoak 21, larunbata

11:00-12:45 Bisita gidatu konbinatua: Museo Irekia eta Salbatore eliza (erdaraz).

Informazioa, erreserbak:

650usurbilbizi.eus.

Usurbilgo jai batzordearen bilera

Bigarren bilera asteazken honetarako, otsailaren 25erako deitu dute, arratsaldeko 17:00etan Po-txoenean. Aurten, uztailaren 1etik 5era ospatuko dira festak.

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASAK • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ARTZABAL
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

• EGUNEKO MENUA
• KARTA
• RAZIOAK
• HANBURGESAK
• BOKATAK

Instagram Facebook

Zuen iragarkia hemen

✉ publicitate@noaua.eus
☎ 747-486-835



TXAPELDUN ARDANGELA • Muna Lurra Kalea, 2 USURBIL • 943 49 88 83

Zuen iragarkia hemen

✉ publizitatea@noaua.eus

☎ 747-486-835

Txotx!!

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak eta Astearteak itxita

f @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Jai egun gauak
ITXITA

*Aurten ez da Txotx-ik egongo,
sagardoa botilan

Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Astelehena eta Asteartea: **ITXITA**
Asteazkena eta Osteguna: **20:00-00:00**

AIALDE BERRI

SAGARDOTEGIA

☎ **943 36 50 31**

Ostirala eta Larunbata: **13:30-18:00 / 20:30-01:00**
Igandea: **13:30-18:00**

📍 Santu enea Aialde-berri, 20170, Usurbil